

# 1. Bizkaiko Erdi Aroko hiribilduen sorrera

## Bizkaia, 1220. urtea baino lehen

Bizkaia izena IX. mendearen bukaeratik ezagutzen dugu. Alfontso III.aren zikloaren *Cronicas Asturianas* lanean, VIII. mendearen erdi aldera Alfontso I.ari gertatutako pasadizo bat aipatzen da: *Eo tempore populantur... Subporta, Carrantia, Bardulies, qui nunc vocitatur Castella... Alabanque Bizcai, Alaone et Urdunia a suis reperitur esse possedas...* Beste dokumentu batean ere, *Ordo numerum regnum Pampilonensium* deritzon, Antso Gartzetz I.a errege nafarraren alaba baten ingurukoak kontatzean (925ean), Bizkaia izena azaltzen da: *domna Belasquita uxor fuit domni Momi Comitis Bizcahiensis*. Horiexek dira XI. mendearen erdira arte Bizkaia izena aipatzen duten agiri bakarrak<sup>1</sup>.


Alfontso III.aren kronikak Alfontso I.ak hainbat herrialdetan egindako birpopulaketen berri ematen digu, eta besteak beste, honakoa dio: Araba, Bizkaia eta Urduña beti egon zirela bertako jatorrizko biztanleen esku. Kronikaren arabera, Araba, Bizkaia eta Urduña lurralde egituratu bereziak ziren, eta beraz, badirudi lehenagoko iturriek baskoi batzuen bizilekutzat aipatzen zuten eremu hura ordurako hasita zegoela egituratzen.

Dena den, Alfontso III.aren kronikaren atal hori beste arrazoi bategatik ere bada interesgarria: Erdi Aroan Bizkaia sortu zuten hiru eremuak aipatzen ditu argi eta garbi, hots, Sopena eta Karrantza (Enkarterriak), Urduña eta Bizkaia. Hasierako Bizkaia horrek –Bizkaia nuklearra ere deitzen

zaio– Nerbioi eta Deba ibaien arteko lurraldea hartzen zuen.

Alfontso III.aren kronikaren ostean, Bizkaia izena ez da gehiago inolako dokumentutan agertzen. Araba izena, ordea, etengabe azaltzen da, seguruenik errege asturien eta emir kordobarren arteko auzian askoz ere lurralde interesgarriagoa izan zelako. Bizkaiari buruz ez dago ia ezertxo ere jakiterik. IX. mendean, antza denez, bikingoak ohiko bisitari izan ziren, Nerbioi eta Mundaka itsasadar nabigagarriez baliatuz. Kristautasuna hedatu zenean, bestalde, Bizkaiak presio bikoitza jasan zuen, nonbait: batetik Alfontso I.aren politikaren ondorioz birpopulatutako Enkarterrietan, eta bestetik, Durangaldean, Argiñetako hilobi kristauak erakusten duten moduan. Prozesu horretan sortuko zen, beharbada, lurraldearen biztanle-dentsitate eskasa handiarazi zuen biztanle-mugimenduren bat, baina sortzekotan ez zen oso handia izan, ezta iraunkorra ere.

Bizkaiko Erdi Aroko historian nagusi den iluntasuna Bizkaia izena aipatzen duen beste dokumentu bati esker argitu zen hein batean. Bertan, Velasquita andreari buruzko aipamena egiten da. Velasquita andrea, lehenago adierazi dugunez, 905-926 bitartean Nafarroako errege izandako Antso Gartzetz I.aren alaba eta Momo izeneko Bizkaiko kondearen emaztea zen. Dokumentuak garai hartako Bizkaiari buruzko hiru ideia ematen ditu aditzera: lehenik eta behin, lurraldea pixkanaka antolatuz zihoala (ziur aski bertako familia nagusi batzuk buru



zire-  
la); bigarre-  
nik, kanpoko-  
entzat nahiko era-  
kargarria zela (Nafarroa-  
ko erregeak bere ezkontza-politika Biz-  
kaira zuzendu zuen); eta hirugarrenik,  
aurreko puntuaren ondorioz, garai hartan  
Nafarroak eragina zuela Bizkaian, Leon,  
Gaztela eta Araban bezalaxe.

Dokumentazio urriko epe horren ondo-  
ren, XI. mendearen erdi aldetik aurrera, itu-  
rriak ugariagoak dira, baina ez, hagatik,  
gehiegizkoak. Horra zer dioskun 1051ko  
dokumentu batek: *Enneco Lupiz, qui est rec-  
tor in illa patria que dicitur Vizcaia et Durango*.  
Iñigo Lopez lehena dugu Bizkaiko jaun  
ugarrien artean. Gainera, Bizkaiko laugarren  
lurraldea, Durangaldea, agertzen da estre-  
inakoz. Orduetik aurrera, finkatu egin ziren  
lurraldea osatzen zuten eskualdeak, eta aldi  
berean, gero eta entitate txikiagoetan bana-  
tu ziren: Bizkaia nuklearrean, esate batera-  
ko, *lurraldeak, monasterioak eta dean-hiriak*  
sortu ziren.

Aipamen hori eta *Enneco Lupiz Vizcayen-  
sis comes* dioen lehentxeagoko beste bat  
kontuan hartuta, argi ikusten da Bizkaia  
Nafarroako erresumako konderrria zela.  
1076an, baina, Nafarroako erresumak inda-  
rra galdu zuen eta Alfontso VI.a lurraldeak  
beregantzen hasi zen; horrela, Bizkaia  
Gaztelaren mende geratu zen. Errege gazte-

larrak, alabaina, ez zuen ukatu Iñigo  
Lopezek Bizkaiko lurraldean zuen  
jauntasuna.

Ezer gutxi iraun zuen, ordea,  
Gaztelarekiko loturak, Alfont-  
so VI.a hil ondoren Bizkaiko  
konderrria Nafarroako-orduan  
erresuma nafar-aragoiarra-  
lurraldea izan baitzen berriro.  
Iñigo Lopezen iloba Diego  
Lopez de Haro I.aren eta erre-  
ge Alfontso I.a Batailariaren  
arteko harremana hautsi egin  
zen, Bizkaiko kondeak Alfont-  
so I.aren emazte eta arerio zen  
Urraka andreari lagundu ziola-  
ko. Horregatik, Lopez de Haro-  
tarrei Bizkaiko gobernua kentzea

eta Ladron jaunari ematea erabaki zuen  
Nafarroa eta Aragoiko erregeak. Eta familia  
horren eskutan egon zen berrogeita hama-  
rren bat urtez.

Diego Lopez de Haro II.aren bidez,  
Lopez de Harotarrak eta Bizkaia elkarri  
lotuta geratu ziren betiko. Diego Lopez de  
Haro II.ari "Ona" esaten zioten eta aurreko  
Diego Lopezen iloba zen.

1170etik aurrera agertzen da Diego  
Lopez II.a familia-buru, baina 1194an izen-  
datu zuten *Bizkaiko jaun<sup>2</sup>*. Handik gutxira,  
1201ean, Diego Lopezek uko egin zion  
Alfontso VIII.a errege gaztelarrarekiko  
zuen loturari, eta nafarren erregearekin  
egin zuen bat. Horretarako, itzuli egin  
zituen lurraldean zituen feudoak. Beraz,  
itxuraz Bizkaia ez zegokion oinordetzako  
eskubidez, hau da, leialtasun-juramentua-  
ren ondorioz zuen bere esku. 1204an, ordea,  
Diego Lopez berriro bereganatu nahian,  
Gaztelako erregeak erabaki zuen jaurerria  
oinordetza-eskubide eta guzti hari ematea  
eta erregearekiko jaurespen feudaletik sal-  
buestea.

Diego Lopezen agintaldian, 1174an, Biz-  
kaia Gaztelaren mende geratu zen berriro  
(behin betirako geratu ere), eta bestalde,

egungo Bizkaiko hiru eskualdek bat egin zuten: Bizkaia nuklearrak, Durangaldeak eta Enkarterriek.

Urduña geroago bildu zitzairen. Lehenengoz, 1220 inguruan egin zuen bat Bizkaiarekin, Lope Diaz II.aren bitartez, baina erabateko atxikipena ez zen XV. mendearen bukaerara arte etorri. Lanestosa eta Balmaseda herriekin ere antzeko zerbitu gertatu zen. Lehena 1287. urtean lotu zitzaion jaurerriari, Lope Diaz de Haroren borondatez hiribildu bihurtu ondoren. Bigarrena, berriz, 1399ra arte batzuetan jaurerriaren barruan egon zen eta beste batzuetan erregeren hiribildu izan zen.

Bizkaiko jaurerriko eskualdeek maiorazko bidez egin zuten bat, instituzio hori berariaz onartuta egon zen garai bakarria Alfontso X.a errege gaztelar-leondarraren agintaldia izan zen arren. Bizkaiko eskualdeak bateratu ondoren, jaurerri osorako erakundeak sortu zituzten, baina eskualde bakoitzak eutsi egin zien ordura arte zituen erakunde-sistemei<sup>3</sup>.

Laburtzeko, 1220. urtean taxutu zuen Bizkaiak bere oinarritzko antolamendu instituzional eta fisikoa. Orozkoko bailararen atxikipen garrantzitsua ez zen, ordea, XVIII. mendearen azken urtera arte heldu.

### **Bizkaiko hiribilduen sorrera: arrazoiak eta sekuentzia**

1199 eta 1376 bitartean eratu ziren Bizkaiko hiribilduak, eta erabateko aldaketa izan zen jaurerriaren populaketari zegokioenez, seguruena inoiz ezagutu duen aldaketarik handiena. Mende eta hiru laurden horretan, hogeitahiribildu eta hiri bat sortu zituzten Bizkaian, mugakide zituen Gipuzkoan eta Kantabrian bezalatsu.

XI. mendetik aurrera, hazkunde ekonomiko nabarmena izan zuten Leon, Gaztela eta Nafarroako erreinetan, bai nekazaritzan, bai abeltzaintzan. Ondorioz, merkataria ere ugartu egin ziren, eta horiek nekazaritza-mundukoez bestelako bal-

dintza juridiko-administratiboak behar zituzten. Ekonomiak gora egin ahala, beraz, hiri-tankerako populazio-guneak sortzeari ekin zioten, eta hiri-gutunen bidez emandako pribilegioei esker, merkataritza-jarduerak erraz hedatu ziren gune horietan.

Logroño izan zen forua eskuratu zuen hirietako bat. 1095ean fundatu zuten Ebro ibaiaren ondoan, eta Alfontso VI.ak forua eman zion, Gaztelako lehen franko-forua. Logroñokoa Jaka eta Lizarrako foruak baino askoz ere hobea zen. Foruari esker, Logroñoko biztanleek oso pribilegio handiak lortu zituzten: betebehar militar gutxiago; merkataritzarako askatasuna; ur, zelai eta basoetarako eskubide ugari; babesa errege-merioaren eta justizi agintariaren aurrean; babes penala eta berme prozesalak... Baina foruaren abantaila guztietatik bat zen garrantzitsua: biztanleek jabetzak erosi eta saltzeko askatasuna zuten, eta ez zegoen ezelako erroldarik. Horrela, bada, une hartatik aurrera, logroñoarrak infanzoiaren pareko izan ziren.

Foruari esker, Logroñoko hiribildua izugarri garatu zen, Santiagoko bidearen inguruan kokatutako zenbait hiribildu eta hiri –Jaka, Lizarra, Gares, Burgos, Leon...– beste. Kantabriar mendikatearen iparraldean ez zuten prozesu horretaz ezer jakin.

Dena den, XII. mendearen erdialdetik aurrera, gauzak aldatuz joan ziren. Bizkaiko Golkoko kostaldeak, luzaroan zokoratu ta egon ondoren, gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen, funtsezko gune bihurtu baitzen penintsularen barrualdeko eta Europako kostalde atlantikoaren arteko merkataritzarako. Aurrerabide horretan Nafarroako errege Antso VI.a Jakitunak ahalegin handia egin bazuen ere, Gaztelako Alfontso VIII.a izan zen eragile nagusia. Bi erregeak gartsu aritu ziren forupeko hiriguneak sortzeko politika sustatzen, eta horrela, 1160tik 1210era bitartean, hiribildu ugari sortu ziren Bizkaiko Itsasoaren kostaldean:

San Vicente de la Barquera, Santander, Laredo eta Urdialis Kantabrian, eta Mutriku, Getaria, Donostia eta Hondarribia Gipuzkoan.

Bizkaian, Gipuzkoan ez bezala (errege-lurra baitzen), jaunak izan ziren fundatze-prozesuaren buru. Jaunen eskutan zegoen hiribilduak sortzeko eskubidea, hau da, baserri-eremuei bestelako estatusa emateko eskubidea. Horrela, lehengo asentamenduak hiribildu bihurtzen zituzten, edo bestela, berriak sortu. Bizkaian 21 hiribildu fundatu zituzten, Gipuzkoan 25 eta Araban 23. Bizkaian, Urduñak hiri-titulua lortu zuen geroago.

Ez dago inolako dokumentutan jasota, baina uste da Bizkaian fundatu zen lehen hiribildua Durango izan zela: 1180 inguruan fundatu zuten, Nafarroako Antso VI.aren, Gasteiz eta Donostia fundatu zituen errege beraren, erabakiz. Datu zehatzik ez dagoenez, badaezpada ere, fundatze-prozesuaren hasiera beranduago kokatu ohi da, 1199an, Balmaseda hiribildua (garai hartan Bortedo jaunaren esku zegoena) fundatu zen urtean, alegia. XIII. mendean zehar, beste zazpi hiribildu fundatu zituzten: Bermeo, 1236 baino lehen (ez da urte zehatza ezagutzen); Urduña, 1229an; Plentzia, garai berean (badirudi 1299an berriro sortu zutela hasierako fundazioak porrot egin ondoren); Otxandio, Durangaldearen hego-ekialdean, 1236 eta 1254 artean; Lanestosa, 1287an; eta azkenik, 1290 baino urte batzuk geroago, Ermua eta Durangoko Tabira, biak ere Durangaldean.

XIII. mendean sortutako hiribilduei buruz dokumentazio zehatzagoa dago, XII. mendekoak ez baitu xehetasun handiegirik ematen. Bilbo 1300. urtean fundatu zuten, eta gero Portugalete (1322), Lekeitio (1325), Ondarroa (1327), Areatza (1338), Markina (1355), Elorrio (1356), Gernika eta Gerrikaitz (1366), Ugao (1375) eta, azkenik, Mungia, Larrabetzu eta Errigoiti (1376).

Mende eta erdi pasatxo hiribilduak sortzen eman ondoren, erabateko aldaketa jasan zuen Bizkaia: lehen gune nagusirik gabeko lurraldea izandakoa hiribildutan antolatutako lurralde bihurtu zen. Hiribilduak txikiak ziren, baina oso erakargarriak inguruetakoko baserri-eremuetako biztanleentzat, industri eta merkataritza-jarduerak bertan biltzen zirelako.

Erdi Aroko Bizkaiko hiribilduen mapari begirada azkarra emanda, argi asko ikusten da banaketa ez zela oso homogeneoa. Aitzitik, hiribildu gehienak Gipuzkoarekiko mugan zeuden; mendebaldean, berriz, askoz ere gutxiago. Hiribilduen kokapenean nagusi den fenomeno horrek eta beste hainbatek lotura estua dute jaunek fundatzeko izan zituzten arrazoiekin.

Garcia de Cortazar-ek<sup>3</sup> dioenez, Bizkaiko hiribilduak sortzeko prozesuan hiru etapa edo aldi egokitu ziren.

Lehen etapa itsasaldea eta meseta lotzeko ahalegina izan zuen ezaugarri. Horretarako, hainbat hirigune sortu zituzten barnealdean: Balmaseda, Urduña, Otxandio eta Lanestosa. Kostaldean, Bermeo aukeratu zuten barnealdearekiko harremanen gune izateko, eta ondorioz, jaurerrian pribilegioak izan zituen luzaroan.

Bigarren etapan (Durango eta Ermuaren fundaziotik -1290 inguruan- Areatzaren fundaziora arte -1335ean-), hiribilduak kostaldean sortu zituzten gehienbat. Bost portu berri fundatu zituzten itsasaldean: Plentzia, Bilbo, Portugalete, Lekeitio eta Ondarroa. Dena den, barrualdean ere fundatu zituzten zenbait hiribildu: Ermua, Durango eta Areatza.

Hirugarren etapan, azkenik, herritarren babes-premiei eman zioten lehentasuna. Izan ere, Bizkaiko leinuen arteko borroken eta gipuzkoarren erasoaldien garaia izan zen. Hiribildu hauek sortu zituzten hiritarrek babesteko: Markina, Elorrio, Gernika, Gerrikaitz, Ugao, Mungia, Larrabetzu eta Errigoiti.





ONDARROA. AURRE-AURREAN, SANTA MARIA ELIZA

Azken etapan hiribildu bakarra sortu zuten, lehen bi etapetako helburua, ekonomikoa, kontuan hartuta: Gernika. Mundaka

itsasadarraren barnealdean eratu zuten, itsas portu izateko ere balio zezan.

---

#### Oharrak

1. Ikus Arizaga, B.; García de Cortázar, J.A.; Ríos, M.L. eta del Val., I.: *Vizcaya en la Edad Media*. I. liburukia. Haranburu, Donostia, 1985, 25-36 orr.
2. Monreal Cía, G.: *Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (Hasta el siglo XVIII)*. Bizkaiko Aldundia. Bilbo, 1974. 34-35 orr.
3. García de Cortázar, J.A.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Aldundia. Bilbo, 1978. 67-128 orr.